

JUAN PÉREZ AGIRREGOIKOA

``Sábado, domingo, sábado''

16-09-2016 . -03-12-2016



CarrerasMugica erakusketa aretoak *Sábado, domingo, sábado* erakusketa aurkeztuko du, atsegin handiz, irailaren 17tik aurrera. Juan Pérez Agirregoikoak areto honetan egiten duen bosgarren erakusketa da, eta, beste obra batzuen artean, Sao Pauloko 2014ko Biurtekoan artistak aurkeztu zuen lana –*Dead Letter*– eta azkenaldian landu dituen sailetak bi – *Ciudades ideales* eta *Tatuajes*– izango dira bertan ikusgai.

Dead Letter (hitz hila, euskaraz) esapidea “aparteko baliorik edo itzalik gabeko testua” izendatzeko erabiltzen da, eta, irudizko adieran, “ondoriorik gabeko, aparteko ahalmenik gabeko zerbeit” adierazten du. Pier Paolo Pasolinik *Ebanjelioa, San Mateoren arabera* filma egin zuen, 1964an, eta, hain zuzen ere, Jesu Kristoren bizitzaren berregiterik leialena lan horixe dela jo ohi da. Baina Juan Pérez Agirregoikoa harritu egin zuen Pasolinik bere bertsioan Mateoren ebanjelioan ekonomiari buruz jasotzen diren txataletako bakar bat ere aipatu ez izanak (zerga biltzailea baitzen Mateo, eta kapitalismoaren teoriarrien aitzindaritzat har bailiteke); eta, hala, lan hartan falta diren atalak bilduz film labur bat egitea erabaki zuen, film luzea egin zenetik 50 urtera. Agirregoikoaren filmak (Sao Pauloko aldirietan errodatu zuen) Pasoliniren filmaren elementu formalak eta estetikoak bere egiten ditu, eta italiar zinemagileak alde batera utzitako pasarteak agertzen ditu, hala nola arrakasta lortzen duen inbertsiogilea saritzen eta etekinik ateratzen ez duena zigortzen den parabola.

Ciudades ideales oihal gainean egindako formatu handiko marrazki sail bat da. Artistak boterearen eta bizi garen tokien izenen arteko erlazioa islatzen du sail horretan, eta nolakoak izan diren eta etorkizunean nolakoak izan litezkeen erakusteko planoak sortzen ditu: Valentzia, Madril edo Bilbo, errepublika garaian, frankismoan eta gaur egun.

Tatuajes sailean, Mendebaldeko tatuajeari buruzko gogoeta proposatzen da, gaur egungo erabilera estetikutik abiatuta: gorputzek –euskarri harroak–, margoturik, beren historia pertsonalak kontatzen dituzte.


Juan Pérez Agirregoikoa (Donostia, 1963) Parisen bizi da, eta han lan egiten du. Arte Ederretako ikasketak egin zituen, EHU eta Parisko Ecole Nationale Supérieure de Beaux-Artsen, baita Filosofiakoak ere, Paris VIII unibertsitatean. Hainbat erakusketa egin ditu askotariko museo eta arte zentroetan: Malmö Kosntmuseum (2015); *Punk: sus rastros en el arte contemporáneo*, MACBA, Bartzelona (2015); *La ville après les applaudissements*, Pavillon Vendôme - Centre d'art Contemporain, Clichy (2014); *Forever Young*, Nürnbergeko Kunsthalle (2013); Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (2012); Museum of Modern Art MUHKA, Antwerp (2008); Umeåko NorrlandsOperan, Suedia (2007); *Chacun à son goût*, Guggenheim Bilbao (2007). Bestalde, nazioartean ospe handia duten talde erakusketetan parte hartu du; honako hauetan, esaterako: Jakartako Biurtekoa (2015); *How to (...) things that don't exist*, Sao Pauloko 31. Biurtekoa (2014), eta Lyongo Biurtekoa (2007). Zenbait beka eta sari jaso ditu bere lanari esker: Gure Arte (2006), Bancaixa Pintura Saria (1997), Gaztela eta Leongo Arte Garaikidearen Museoaren (MUSAC) Sorkuntza Artistikoko Beka (2004), Mexikoko La Vaca Independiente fundazioaren Sorkuntza Artistikoko Bekako Egonaldi Artistikoa (1999) eta Banesto fundazioaren Sorkuntza Artistikoko Beka (1993). Lanak ditu honako museo eta bilduma hauetan: Musac (León), CGAC (Santiago de Compostela), San Telmo Museoa (Donostia), Madeira Corporate Services bilduma (Madeira), Guggenheim Bilbao, Legion Düsseldorf bilduma, MAM Sao Paulo, Iberdrola bilduma (Bilbo), MNCARS (Madril), La Panera bilduma (Lleida) eta Marugame Hirai museoa (Marugame, Japonia).



Death letter. Instalazioa, pintura ohial gainean, video lana.



Death letter, 2014. 30', b&n



Death letter, 2014. 30', b&n



Death letter. Instalazioa, pintura ohial gainean, video lana.



Erakusketaren ikuspegi orokorrak



Ciudades ideales, 2016. Arkatza ohial gainean, 154x210.
Tatuajes. Teknika mixtoa ohial gainean, 100x75.



Serie tatuajes. Teknika mixtoa ohial gainean. 100x75.



Serie tatuajes. Teknika mixtoa ohial gainean. 100x75.



Serie tatuajes. Técnica mixtoa ohial gaínean. 100x75.



Serie tatuajes. Técnica mixtoa ohial gainean. 100x75.



Serie tatuajes. Teknika mixtoa ohial gainean. 100x75.



Erakusketaren ikuspegi orokorra



Ciudades ideales, 2016. Arkatza ohial gainean, 215x213.

